

**ERABAKIA, 2019KO MAIATZAREN 17KOA, UPV/EHUko GERENTEARENA, LANPOSTU BAT ZERBITZU BETEKIZUNETAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA.**

**F 1128**

**Ordainsarietako eta Gizarte Segurantzako teknikaria  
PERTSONALEKO GERENTEORDETZA**

**EGITEZKO AURREKARIAK**

Erabaki honen eranskinean aipatutako ezaugarriak dauzkan lanpostua hutsik egongo dela aurreikusita dago.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.-** Zerbitzu-betekizuna honako arautegietan zehazten da: Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea, 190/2004, urriaren 13ko Dekretua, Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan-Baldintzak Arautzeko Akordioaren 65,2. artikulua (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua) eta administrazio eta zerbitzuko pertsonaleko funtzionarioaren zerbitzu eginkizunen prozedura barematua ezartzeari buruzko AZPko Funtzionario Plangintza Batzordeak 2017ko uztailaren 18an hartutako akordioa. Akordioa, Gobernu Kontseiluak berretsi zuen 2017ko irailaren 28ko erabakiaren bidez (2018ko maiatzaren 21eko EHAAn).

**Bigarrena.-** Era berean, honako lege hauek aplikatu behar dira: Administrazio-Prozedura Bateratuaren 39/2015, urriaren 1eko Legea (2015eko urriaren 2an EAOan argitaratua), gainerako arau orokorrak eta eurekin bat datozen beste guztiak.

**Hirugarrena:** Gerentziak eskumena dauka erabaki hau emateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta errektorearen eskumenak eskuordetzeko den 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiarekin bat etorritik (2017ko otsailaren 3ko EHAAn);

Hori guztia kontuan hartuta, eman dizkidaten eskumenen babesean, honakoa

**ERABAKI DUT**

**Bakarra.-** Erabaki honen eranskinean zehazten den lanpostua aldi baterako zerbitzu-betekizunetan betetzeko deialdia iragartzea.

**OINARRIAK**

**Lehenengoa:** Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Lehenengo zuzenbideko oinarrian aipatzen den 2017ko uztailaren 18ko akordioa izango da.

Aipatutako Akordioa ikus daiteke UPV/EHUko web-orrian (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

**Bigarrena:** Eskabideak aurkezteko epea, aipatutako web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 5 egun balioduneko epean amaituko da eta pertsonaleko gerenteordetzara zuzendu beharko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko erregistro orokorrean aurkeztuz edo, era berean, Administrazio-Prozedura bateratuari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (urriaren 2ko EAO) 16.4. artikuluan jasotako beste edozein bide erabiliz.

Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroak zehazten dira Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkari Nagusiaren 2018ko maiatzaren 21eko erabakian, eta Interneteko helbide honetan: [http://www.ehu.es/erregistroko\\_bulegoak.html](http://www.ehu.es/erregistroko_bulegoak.html)

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusetan kokatutako erregistroen irekiera-ordutegia, astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etarako izango da, goizeko ordutegian eta 15:00etatik 16:30etara arratsaldeko ordutegian. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Santuko eta Eguberrietako txandetan, ordutegia 9:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da.

**Hirugarrena:** Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

**Laugarrena:** Balioztatu beharreko merezimenduak 2017ko uztailaren 18ko akordioaren 6. artikuluan azaldutakoak izango dira, Artikulu honetan arautzen diren murrizketak kontutan hartuz.

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

**Bosgarrena:** Eskaerarekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2017ko uztailaren 18ko akordioaren 5. artikuluan esandakoa salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzinasunari, Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei eta maila pertsonal finkatuari dagozkion merituenak.

**Seigarrena:** Deialdi honetan parte hartzen dutenek uko egin diezaiokete deialdian parte hartzeari behin-behineko puntuazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen den egun arte. Gero, esleipenari uko egiten badiote, AZP funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko akordioaren 4.2. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

## ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean edo, nahiago bada, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jurisdikzio horretan eskumena duen epaitegian; horretarako hilabete bi egongo dira, erabaki hau 2017ko uztailaren 18ko akordioaren 5.2. artikuluan adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Leioan, 2019ko maiatzaren 17an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Artech



## I. ERANSKINA

Izena:	Ordainsarietako eta Gizarte Segurantzako teknikaria
Erref.:	F 1128
Zenbatgarrena:	1
Taldea:	A/B
Eskala edo kidegoa:	Gestio Teknikaria/Unibertsitate kudeaketa
Maila:	23
Lanaldia:	Arautua
Hizkuntza eskakizuna:	3; Derrigortasun data:
Ikastetxe edo Zerbitzua:	PERTSONALEKO GERENTEORDETZA
Campus:	BIZKAIA
Betebehar espezifikoak:	Zuzenbidean lizentziatua edo Lan Harremanetan diplomatua

### **Lanpostua aldi batez betetzeko baldintzak**

1.-Parte-hartzaileak.- (Administrazio eta zerbitzuetako pertsonal funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko 2017ko uztailearen 18an hartutako akordioaren 4. artikulua, gobernu kontseiluak 2017ko irailaren 28an berretsia),(2018ko maiatzaren 21eko EHAAn).

Funtzionarioek hartu ahal izango dute parte jarduneko zerbitzuan badaude edo nahitaezko eszedentzian, seme-alabak zaintzeko eszedentzian, edo beste administrazio publiko batean aritzeko eszedentzian egonik edo borondatezko eszedentzia hartuta egonik lanera itzultzea eskatu badute (eszedentzian eman beharreko gutxieneko denbora behin igarota azken kasuan), honako kasu hauek batean egon ahal izango direlarik:

a) Karrerako funtzionarioak dei egindako lanpostuaren talde eta eskala berekoa badira, talde eta eskala bikoitzera irekitako kasuetan izan ezik. Lanpostuotan talde eta eskala bietako funtzionarioek hartu ahal izango dute parte, dei egindako lanpostuak eskatutako betebeharrekoak beteta.

b) Talde bereko baina beste eskala bateko karrerako funtzionarioak badira.

c) Karrerako funtzionarioak deitutako lanpostuaren beheragoko hurrengo talde eta eskalakoak badira.

Deialdian parte hartu ahal izango du dei egindako lanpostuaren betebeharrak betetzen dituen pertsonalak, baldin eta eskariak aurkezteko epea amaitzeko data baino urte bete lehenago zerbitzu betekizunen bidezko izendapenik jaso ez badu dei egindako lanpostuetarako, prozedura honen bidez lortuta.